


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

BAKARDADEAREN TRATAERA GAUR EGUNGO

HAUR ALBUMETAN (2000-2019)

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Marquínez Rodríguez, Mikel.

ZUZENDARIA: Arnal Gil, Txabi.

2019/2020

Mikel Querejetari,
irakasle izatearen
MAGIA
erakutsi zidalako.

AURKIBIDEA

1. LABURPENA.....	1
2. SARRERA.....	3
3. MARKO TEORIKOA.....	4
3.1. Haur eta Gazte Literaturarako hurbilpena.....	4
3.2. Haur eta Gazte Literaturaren definizioa.....	5
3.3. Genero literarioa: Alburua.....	8
3.4. Gai berritzaileak: Bakardadea.....	11
3.5. Bakardadea eta umea.....	13
3.6. Bakardadea eta Haur eta Gazte Literatura.....	14
4. METODOA.....	16
4.1. Ikerketaren helburuak.....	16
4.2. Hipotesiak.....	16
4.3. Informazioa jasotzeko baliabideak.....	20
4.4. <i>Corpus</i> literarioa.....	24
5. EMAITZAK.....	26
6. ONDORIOAK.....	33
7. HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.....	38
8. BIBLIOGRAFIA.....	39
9. INTERNETGRAFIA.....	43
10. AZTERTUTAKO OBRAK.....	44
11. ERANSKINAK.....	45

1. LABURPENA

Lan honen helburua gaia bakardadea duten Haur eta Gazte Literaturako hainbat albumek osatzen duten *corpus* bat sortzea eta aztertzea da. Ikerketa marko teorikoa sendo batean oinarritu dugu, Haur eta Gazte Literaturaren, albumaren eta bakardadearen inguruko bilaketa bibliografiko bat eginez. Marko teorikoan Haur eta Gazte Literaturaren bilakaera eta kontzeptua, albumak genero literario bezala dituen berezitasunak, Haur eta Gazte Literaturan gai deserosoen trataera, bakardadea eta umearen arteko lotura, eta Haur eta Gazte Literaturaren eta bakardadearen arteko harremana azaltzen dira. Ondoren gure *corpusa* sortuko duten irizpideak zehaztu eta analisirako metodoa garatu dugu, lortu nahi ditugun helburuekin bat egiten duena. *Corpusa* 2000-2019 urteetan argitaratutako zenbait albumek osatzen dute. Ikerketaren bitartez lortutako emaitzak plazaratu eta, gogoeta egin ostean, ondorioetan txertatu ditugu. Azkenik etorkizunari begira, lan hau hobetzeko edo aldatzeko proposamenak egin ditugu.

Hitz gakoak: Haur eta Gazte Literatura, albuma, bakardadea.

1. RESUMEN

El objetivo de este trabajo es crear y analizar un *corpus* formado por álbumes de Literatura Infantil y Juvenil que comparten un tema común: la soledad. Hemos basado nuestra investigación en un marco sólido realizando una búsqueda bibliográfica sobre la Literatura Infantil y Juvenil, el álbum y la soledad. En el marco teórico se explica la evolución y concepto de la Literatura Infantil y Juvenil, las peculiaridades del álbum como género literario, el tratamiento de los temas incómodos en la Literatura Infantil y Juvenil, la soledad y el niño y la relación entre la Literatura Infantil y Juvenil y la soledad. Después hemos definido los criterios que van a dar lugar a nuestro *corpus* y desarrollado un método de análisis que se corresponde con los objetivos que perseguimos. El *corpus* está compuesto por álbumes publicados entre los años 2000-2019. Tras la reflexión y publicación de los resultados obtenidos a través de la

investigación, se han incorporado a las conclusiones. Por último, de cara al futuro, hemos realizado propuestas para mejorar o modificar este trabajo.

Palabras clave: Literatura Infantil y Juvenil, álbum, soledad.

1. SUMMARY

The aim of this work is to create a *corpus* formed by albums of Children's and Young Adult's Literature and to analyse it through research. We have based the theoretical research on a solid framework by carrying out a bibliographic research on Children's and Young Adult's Literature, the album and loneliness. In the theoretical framework, we explain the evolution and concept of Children's and Young Adult's Literature, the peculiarities of the album as a literary genre, the treatment of uncomfortable topics in Children's and Young Adult's Literature, loneliness as theme and the link between Children's and Young Adult's Literature and loneliness. Apart from that we have defined the criteria that will generate our *corpus* and developed a method of analysis that corresponds to the objectives we pursue. The *corpus* is composed of albums published between the years 2000-2019. After reflection and publication of the results obtained through the research, they have been integrated into the conclusions. Finally, with a view to the future, we have made proposals to improve or modify this work.

Keywords: Children's and Young Adult's Literature, album, loneliness.

2. SARRERA

Gaur egungo Mundua izeneko itsasontzian, guztiok batera egiten dugun bizitzaren bidaia noraezean dabil. Gizarteak pertsona bezala bereizi eta gure gaitasunen arabera sailkatu gaitu geure buruaz etekina ateratzeko. Gizarte zoroak ezartzen gaituen neurrigabeko bizimodu honen ondorioz, bakardadea heldu, gazte eta ume askoren itzal bihurtu da. Shaun Tan-ek (2005) idatzi eta irudiztatutako *El árbol rojo* albuma irakurtzean, buruan bueltaka ibili zitzaizkidan esaldi eta irudi askoren artean, hauek izan ziren nire bizitzaren momentu horretan sentitzen nuen bakardadea malko bihurtu zutenak: “la oscuridad te supera, nadie entiende nada, el mundo es una máquina sorda sin sentido ni lógica, y a veces esperas, y esperas, y esperas, y espera, y esperas... pero nada ocurre” (Tan, 2005: 5-9). Obra hau Practicum II-an egin bitartean klasean irakurri nuen eta nik lehen aldiz irakurtzean izandako erantzun bera beste ume askok ere izan zuten. Momentu horretan konturatu nintzen Haur eta Gazte Literaturak botere berezi bat duela.

Oraindik gogoratzen dut Lehen Hezkuntzako Graduaren bigarren mailan Pello Añorgak irakasle, idazle eta ipuin-kontalariak irakurritako album bat. Album horrek klasean sortu zuen giroak Haur eta Gazte Literaturaz disfrutatzearen interesa piztu zidan. Baina genero horren “jonkia” bihurtu ninduen errudun nagusia Txabi Arnal izan da, Lehen Hezkuntzako Graduaren hirugarren mailan Literaturaren Didaktika ikasgaiaren irakasle izan nuena. Irakasle eta idazle horren klase horietan Haur eta Gazte Literatura onak edozein hartzailerentzat izugarritzko balio literarioa izan dezakeela ikasi nuen. Horrekin batera albumak irudiaren, testuaren eta grafiaren arteko harremanari esker sortzen duen sentikortasun berezia erakutsi zidan, eta baita Haur eta Gazte Literatura Lehen Hezkuntzan gai deserosoak tratatzeko tresna izugarria dela ere.

Lan honetan aurreko paragrafoetan idatzitako esperientzia pertsonalak batu nahi izan ditut. Azken urteotan hain arrakastatsuak izan diren albumak aztertzea erabaki dut Lehen Hezkuntzan erabiltzeko, eta bakardadea bezalako gai deserosoak tratatzeko baliabide literario ezin hobea dela uste dudalako. Gure asmoa gaur egungo haur albumetan (2000-2019) bakardadearen trataera aztertzea da, etorkizunean Haur eta Gazte Literaturaren bitartez gure munduaren zati txikitxo bat eraldatzeko.

3. MARKO TEORIKOA

Atal honetan Haur eta Gazte Literaturarekin, albumarekin eta bakardadearekin harreman duten alderdi teorikoak aztertuko ditugu, oinarri teoriko hori lanean kokatzen, eta *corpusa* aztertzen erabiliko ditugun irizpideak zehazten lagunduko gaitu.

Ezer baino lehen, Haur eta Gazte Literaturari eta haurren irakurzaletasunari, ulermenari eta sormenari erreparatuko diegu; ondoren, gure lana aurrera eramateko aukeratu dugun genero literarioaren, albumaren, ezaugarriak aztertuko ditugu, eta gaur egungo haur bakardade sentimenduaren inguruko analisi bat egingo dugu.

Bukatzeko, hiru alderdi horiek duten harremanari buruzko hausnarketa egingo dugu lan honen bitartez lortu nahi dugun helburua borobiltzeko.

3.1 HAUR ETA GAZTE LITERATURARAKO HURBILPENA

Lehen atal honetan gure marko teoriakoaren bizkarrezurra den literaturara hurbilduko gara. Argi izan behar dugu corpusaren azterketaren helburu nagusia literatura bitartez haurren irakurzaletasuna, ulermena eta sormena bultzatzea dela, nahiz eta literatura beste funtzio asko bete. Hezkuntzaren eta literatura arteko loturari garrantzia emango diogu, gure lana Haur eta Gazte Literaturan oinarrituz entitate propio gisa nola sortu eta garatu den jakiteko.

Euskaltzaindiak literatura hitzaren bidezko adierazpenean, ahozkoan nahiz idatzian, oinarritzen den artea bezala definitzen du (Euskaltzaindia, 2020). Galarraga (2018) irakaslearen hitzetan, literatura edozein formatan (idatziz, ahoz, bakarka, taldean, helduaroan, haurtzaroan...) norbanakoa zein beste guztia ezagutzeko eta eraldatzeko boterea du, eta Manguelek (2013) azpimarratzen du badagoela historia osoko irakurleok zerbait partekatzen duguna: irakurketak eskaintzen digun gozamina, ardura eta ahalmena.

Literatura, bere barnean dituen genero ezberdinei esker, hainbat onura eskaintzen dizkio bestaldean dagoen haurtzaleari, besteak beste: pertsonaien azalean kokatzeko ahalmena, sormenari askatasuna emateko esparrua, emozio anitzak sentitzeko aukera, istorio izugarriak bizitzeko garraiobidea... Hau da, liburuek eta istorioek begiak mundura, bizitzara, besteengana eta euren baitara irekitzen dizkiete haurtzaleei (Turin,

2017).

Marko teorikoaren sarreran aipatu dugun bezala, eta gure Lehen Hezkuntzako testuingurua kontuan izanik, Haur eta Gazte Literaturaren ikas-irakaskuntza funtzioan oinarrituko gara. Euskal Haur eta Gazte Literaturari dagokionez, XIX. mendean zaila zaigu Haur eta Gazte Literaturaren aztarnaren bat topatzea, Iturriagak eta Goyhetxek argitaratu zituzten elezahar-bildumez gain (Etxaniz, 2011). Haur eta Gazte Literatura adar bat bezala, XVIII. mendearen bigarren erdian agertu zen, nahiz eta XX. mendea izan garapen handieneko momentua (Galarraga, 2018). Haurtzaroa gizakiaren garapen etapatzat hartzeak eta Euskal Herriko eskola elebidunen material didaktikoen beharrak literaturako mota honetako testuen indartzea ekarri zuen XX. mendearen hasieran (Olaziregi, 2001). Eskolaren, haurtzaroaren eta literaturaren dagoen arteko lotura, historikoki eskolak ezarritako gehiegizko didaktismoaz minduta, Haur eta Gazte Literaturaren balore literarioa balore didaktikoaren menpe geratu zen irakurleak irakurketan aurkitu behar zuenari buruz nahastera iritsi arte: gozamenik ez eta errealitate subjektiboa topatzen zuen hartzaileak (Bruner, 1996). XXI. mendeari dagokionez, albuma da Haur eta Gazte Literaturan suspertzerik handienetakoa eta berritzaileenetakoa duen literatura generoa (Etxaniz, 2011).

32 HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN DEFINIZIOA

Haur eta Gazte Literaturaren kontzeptua urteetan zehar zalantzan jarri da. Juan Cervera (1989) Filosofia doktore eta irakaslearen arabera, badago Haur eta Gazte Literatura entitate propio bezala babesten ez duen korrontea, tesi liberala deitzen dena. Tesi liberalaren arabera, Haur Literatura ez da existitzen, beraz, literatura ona eta txarraren arteko zatiketa besterik ez dagoela uste dutenen jarreran murgiltzen da. Horregatik, literaturarekin lotutako beste edozein sailkapena faltsua dela baieztatzen du. Baina badago Haur eta Gazte Literatura gu bezala defendatzen duen beste korronte bat: tesi zuzentzailea. Haur eta Gazte Literatura umeei edo gazteei (haientzat idatzia edota moldatua) zuzendutako literatura da (Etxaniz, 1997). Literaturaren adar honek umeen adin tarte horretarako literatura propioaren suspertzea bultzatzen du.

Gaur egun Haur Literatura badago, eta heldua literaturaren eta umearen arteko bitartekaria izan behar da. Hau da, helduak idazten du, helduak marrazten du, heldua editorea da... beraz helduak erabakitzen du umeek zer irakurri behar duten. Baina argi izan behar dugu Haur eta Gazte Literaturak balio literario handia izan dezakeela. Isabel Tejeriak (1994) ondo azaltzen duen bezala, helduentzako liburu onak ez dira beti haurrentzat, baina haurrentzako liburu onak, berriz, helduen interesa pizteko eta hunkitzeko gai dira.

Haur eta Gazte Literaturaren kontzeptuak autore ezberdinen hitzetan esanahi anitzak hartzen ditu. Bortolussik (1985) Haur eta Gazte Literatura umea helmuga bezala hartzen duen literatura dela esaten du. Baieztapen honi Sorianok (1985) beste ezaugarri batzuk gehitzen dizkio definizioa aberasteko. Haur eta Gazte Literatura komunikazio historikoa da, hau da, denboran eta espazioan lokalizatua, idazle heldu baten eta hartzaile haur baten artean, zeinek, definizioz, helduaroa ezaugarritzen duten errealitatearen, gaitasun afektiboen eta abarren esperientzia partziala baino ez baitu. Sorianoren (1985) definizioak komunikazio literario ororen funtsezko bost elementuak isolatu eta erlaxionatzen ditu: igorlea, hartzailea, mezua, kodea eta hartzailearen erreferentzia den errealitatea. Baieztapen honekin idazleak argi ikusten du Haur eta Gazte Literatura umearen testuingurura egokitu behar dela, kontuan izanda bere burua oraindik ere eraikitzen ari dela.

Cerveraren (1989) esanetan, haurrak komunikazio kanalaren bitartez zatiak jasotzen ditu; bizitzaren, munduaren, gizartearen, inguru hurbilaren zein urrunaren, eskura duen errealitatearen nahiz eskura ez duenaren zatiak. Hori guztia hitz eta irudi sistema baten bidez jasotzen du. Zertarako? Behar intimoei eta esanezinei erantzuteko.

Aurreko definizioarekin batera, J. Rubiók (1998) esaten du Haur eta Gazte Literatura irudimenezko literaturaren adar bat izatearekin batera, haurren ulermen-gaitasunera eta benetan interesatzen zaien mundura hobekien egokitzen dena dela. Hau da umearen errealitatearekin batera joan behar duten obrak direla.

Juan Cerverak (1989) azken definizio honi beste ezaugarri bat gehitzen dio esanez Haur eta Gazte Literatura hitzaren bitartez helburu artistikoa edo ludikoa duten edozein jarduerak edo adierazpenak osatzen duela. Hitz horiekin zehazten du literaturaren adar

honen helburu nagusia gozatzea dela, eta horren ondorioz garrantzia hartzaileak hartzen duela.

McDowellen (1973) azterketaren arabera, hauek dira autorearentzat Haur eta Gazte Literaturak izan behar dituen ezaugarri garrantzitsuenak:

- Testua laburra izan behar da.
- Protagonista umea ala gaztea izan behar da. Horri esker hartzailea protagonistarekin identifikatuta sentituko da.
- Ekintza eta elkarrizketa nagusitzen dira. Obrek erritmoa izan behar dute umearen arreta galdu ez dadin.
- Moralizatzailea izan behar da.
- Egitura klasikoa izan behar du. Hau da, protagonistaren aurkezpenak, istorioaren garapenak eta amaierak osatu behar dute obraren egitura.
- Amaiera baikorra izan behar du.
- Umearen hizkuntzara egokitua egon behar da.
- Magiaz, fantasiaz eta abenturaz betea egon behar da.

Nahiz eta definizio hau zaharrenetariko bat izan, Haur eta Gazte Literaturak izan behar dituen ezaugarri nagusienak zerrendatzen ditu. Ezaugarri hauek gaur egungo testuingurura moldatu behar izan dira, hartzailearen, umearen, beharrak gizartearekin batera aldatzen direlako. Adibidez, Turinek (2017) esaten du, gaur egungo obrek ez dutela helburu moralizatzaile edo pedagogiko bat izan behar. Horrekin batera, McDowellek (1973) sortutako ezaugarri zerrendaren arabera, Haur eta Gazte Literaturako obrek amaiera baikorra izan behar dute. Horrek esan nahi du istorioan zehar sortutako korapiloa konpontzen dela eta protagonistak edo protagonistek zoriontsu amaitzen dutela. Baina Colomerek (1998) emandako amaiera moten sailkapenaren arabera, gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan, amaiera zoriontsuaz gainera, baditugu beste amaiera mota posible batzuk. Idazleak bost amaiera mota proposatzen ditu: zoriontsua, negatiboa, nahasia, irekia eta arazoaren onarpenean oinarritua.

3.3 GENERO LITERARIOA: ALBUMA

Marko teorikoaren hurrengo azpiatal honetan gure lana oinarritu dugun genero literarioan, albuma, zentratuko gara. Aurreko atalean azaldu dugun bezala, literaturak forma anitzak har ditzake eta, horren ondorioz, testu baten irakurketan ulermen eta interpretazioa prozesu ezberdinak sortuko ditu. Aldagaien artean testu mota dago, horietako bakoitzak ezaugarri eta berezitasun jakin batzuk izango baititu, irakurketa modua baldintzatuko dutenak (Zayas, 2012). Horregatik generoaren ezaugarri propioetan sakonduko dugu, ondoren aztertuko dugun *corpusean* eragina izango dutelako. Horretarako albuma historian zehar izan duen bilakaera aztertuko dugu, beste literatur formatetik bereizten duten alderdiak identifikatzeko.

Albumaren lehen agerpena, aurreko paragrafoetan aipatutako Haur eta Gazte Literaturaren agerpen eta garapena bera litzateke (Zaparaín & González, 2010). Olaziregik (2001) Haur eta Gazte Literaturaren garapen garrantzitsuen XX. mendean kokatzen du, eta garapen hori erabakigarria izan zen albumaren sorkuntzan. 1920ko hamarkadan albuma literatura genero bezala definitzen duten berezitasunak sortzen hasi ziren, besteak beste, ilustrazio teknika ezberdinak, kaligrafia motetan eta koloreen erabileran. Horrekin batera, gaien aniztasuna eta hauek hartzen zuten sakontasuna aipatzeko ezaugarri bat izan zen (Doonan, 1996). Urteak aurrera joan ahala, obren helburua umeei baloreak eta ikasbideak irakasteaz gain, plazerra sorraraztea izan zen (Galarraga, 2018).

Baina albumaren benetako identitatearen jaiotza 1960. hamarkadan kokatzen da, urte horietan inprimaketan aurrerapen anitzak egon zirelako ilustrazioen estilo espresiboarekin batera (Galarraga, 2018). Hamarkadako idazle eta irudigile garrantzitsuenetariko bat Maurice Sendak (1928- 2012) dugu. 1963. urtean *Where the wild things are* (*Piztiak bizi diren lekuan*) obra argitaratu zuen. Bere obrarik arrakastatsuenaz aparte, albumaren eredu bilakatu zen bere testu-irudiaren eta diseinuaren integrazio bikainagatik (Jones, 1989).

J. Arnal (2011) idazlearen hitzetan, albuma irakurle guztientzako obra bat da, non ilustrazioaren protagonismoa gutxienez testuaren bezain nabarmena baita, eta horrekin dialektika jakin bat ezartzen baitu. Definizio horretan irakurle guztientzako obra bat dela baieztatzen da. Ezaugarri horri helduz, beste definizio interesgarri bat aurkeztuko dugu: “Lo que caracteriza a los álbumes es que utilizan dos códigos -la imagen y el

texto- para contar su historia. Este recurso puede utilizarse con propósitos distintos, y la obra resultante puede dirigirse a lectores de diferentes edades” (Colomer, 2005: 41). Definizio honen arabera, albumaren hartzailearen perfila zabala da.

Aurreko definizioetan aipatu den bezala, liburu ilustratu baten eta album baten arteko aldeak ez du zerikusirik liburu horrek dituen ilustrazioen kalitatearekin edo kantitatearekin, horien funtzio eta efektuekin baizik (Durán, 2009). Teresa Duranek (2009: 202) honela idazten du albumaren inguruan:

[...] cualquier librero sabe que un álbum no forma parte, forzosamente, de una colección, cualquier crítico sabe que su contenido no es normalmente didáctico ni divulgador de otros conocimientos que no sean los propios de la narrativa, y cualquier ilustrador sabe que no es que el álbum incluya ilustraciones, sino que las ilustraciones «hacen» que ese libro sea un álbum. Y en cuanto al gran formato, depende.

Shulevitz (1997) autore eta ilustratzaileak baieztatzen du albumaren identitate propioa irudiaren eta testuaren arteko erlazioan dagoela. Irudia hitzari esker hobeto eta sakonago ulertuko da eta, aldi berean, hitzak irudian sakontzeko erraztasuna emango du. Lengoaia bien batasunak norberaren eraginkortasun komunikatiboa areagotzen du (Galarraga, 2018).

Hala ere, albumari izaera ematen dioten beste hainbat ezaugarri daude, testuaren eta irudiaren arteko harremanean oinarritzen ez direnak: koloreak, diseinua, papera, formatua, tipografia, azalak, guarda... Horiek guztiak beharrezkoak dira liburuak duen helburu literarioa bermatzeko (Medina, 2014).

Zaparrain eta González-en ustetan (2010: 23), albuma bereizgarri egiten duten ezaugarriak hauek dira:

- Hitza (testua), esplizitua ala inplizitua egotea irudi segidan.
- Irudiak hitzari lotuta egotea.
- Sekuentzialitatea, irudiak segidan eta ordenan testuaren eta orriak pasatzearen arabera.
- Liburua euskarri bezala.
- Paratestuak: azala, guarda, euskarriaren itxura, kolorea... obraren parte izatea.

Albumaren irakurketari dagokionez, Arnal (2011) idazlearen hitzetan, albumean irakurketa modu berezi bat lantzen da, non irudiak eta testuak esanahiaren eraikuntza lortzeko harremanetan baitaude. Lankidetzat hori are estuagoa izaten da pertsona bera ilustrazioaren eta hitz idatziaren egilea denean. Albumak irakurtzean irakurleak bi kode ezberdin integratzen ditu, non bere elementu guztiak istorioaren zerbitzura dauden.

Bereizgarri horiek, irakurketa konplexua eskatzeaz gain, inferentzien eta hipotesien beharra eta irakurle aktiboaren rola azpimarratzen dute eta horrek bide interesgarria irekitzen du eskolan elkarrekin literaturaz hitz egiteko, esanahi partekatuak eraikitzeko, sormena lantzeko... (Galarraga, 2018). Lartiteguik (2009) esaten zuen bezala, irakurlearen/entzulearen parte-hartzea ezinbestekoa da generoaren esanahia eraikitzeko, hartzaileak obraren sorkuntzan parte har dezan.

Testuaren eta irudiaren arteko sinergia izango da generoa zehazteko ezinbesteko ezaugarria (Ramos, 2011). Díaz Hanának (1996) esaten du album batean sortzen den testu-ilustrazioen sinbiosiak aditza kolore, esaldia lerro, poesia argi edo arbitrarioa perspektiba bihurtzen duela. Hau da, adierazpen mota bi hauen batasunak bakoitzaren komunikazio eraginkortasuna aberasten du. “Hain funtsezkoa da irudiak hartutako garrantzia (...), ilustrazioa ez dela bakarrik beharrezkoa bihurtu (...) baizik eta testuak baino garrantzi gehiago har dezakeela” (Obiols, 2004:25). Baieztapen horrekin ezin dugu ahaztu albumaren hitzari edozein irakurgai literariori eskatzen diogun kalitate maila bera eskatu behar diogula: hizkuntzaren erabilera estetikoa, idazkera egokia eta adierazpen garbia.

Gaur egungo albumetan agertzen diren gaiei buruz zenbait aldaketa eta joera berri antzeman ditzakegu. Colomerren (2004) hitzetan, azkeneko urteotan gizarteak sistema globalizatu batera jo du eta horren ondorioz pertsonen duten bizi estilo berriak literaturan ere eragina izan du. Albumak aldaketak pairatu ditu munduaren ikuspegi berriarekin batera. Teknologia berrien zabalkuntzak, familia molde berriek eta kultur aniztasunak buruz behera jarri dute orain arte genuen Haur eta Gazte Literatura gaiaren kontzeptua. Literatura berriak da albumarekin batera, egungo bizimoldeak sortutako segurtasun ezak eta bakardadea gai bezala islatu dira obra literarioetan. Aztoratutako gizarte honetan irakurleek haien barneko sentimenduekin topo egiteko eta literaturaz gozatzeko denbora hartu behar dute (Colomer, 2006). Idazleak esandakoak lotura estua

dauka albumek gaur egun duten gaiekin; sentimenduen aurkikuntza, munduari buruzko ideia filosofikoak eta emozioak.

34 GAI BERRITZAILEAK: BAKARDADEA

Aurreko puntuaren amaieran erreferentzia egin diogu Teresa Colomerrek (2004) aipatutako gizarte aldaketak Haur eta Gazte Literaturan duen eraginari eta, aldi berean, albumen gaien proposamenetan. Baina gai berritzailei buruz hitz egin aurretik, Euskal Haur eta Gazte Literatura modernoak izandako bilakaera historikoa aztertuko dugu.

“1980tik aurrera Euskal Haur eta Gazte Literaturan garai berri bat sortu zen, aldaketa kualitatibo baina batik bat kuantitatibo ugariarekin (...) Ia-ia ezer ez argitaratzetik, edo hamarka batzuk liburu plazaratzetik 80ko hamarkadan 300 liburu urtero, eta hurrengo hamarkadan 400 argitaratzea pasa zen. Eta aldaketa hau, ugaritze hau, garrantzitsua baldin bada, are garrantzitsuagoa da aldaketa kualitatiboa.” (Etxaniz, 2010, 3orr)

Gaur egungo literaturak erakargarria eta interesgarria izan behar zuen. Etxanizek (2010) Euskal Haur eta Gazte Literatura modernoaren hasiera markatu zuten hiru obra izendatzen ditu: Anjel Lertxundiren (1981) *Tristeak kontsolatzeko makina*; Chuck Aranberri *dentista baten etxean* Bernardo Atxagak (1982) idatzia; eta *Txan fantasma* Mariasun Landaren (1984) ipuina.

Idazleak azpimarratzen du aldaketa handiena giza kritikan sakontzen edo gure burua hobeto ezagutzen laguntzen duten obrek eragina izan zutela, errealismo kritiko korrante literarioaren barnean. Korrante hau gaurkotasunetik aztertutako munduan eta ingurunean kokatzen da. Literaturaren forma berezi honek didaktismoaren kontrako ideia defendatzen du. Michi Strausfeld-ek (1989:83) bere *El realismo crítico en la literatura infantil-juvenil* artikuluan, korrante honen helburu nagusietako bat honela definitzen du:

“El lector, sea niño o joven, quiere antes que nada disfrutar de un texto literario y lúdico- lo cual es su derecho-. A la vez confía en que las soluciones que se dan

a los problemas presentados, le convengan por la lógica interna del relato y no por la (probable) intención pedagógica del autor”.

Artikuluak dionaren arabera, korrante berri hau bi obra berezirekin jaio zen: *Emilio eta detektibeak* (Erich Kästner, 1929) eta *Pippi Kaltzaluze* (Astrid Lindgren, 1945). Hortik aurrera umearen mundu eta arazo errealak proposatzen zituzten obrak nagusitzen hasi ziren. Bai gurasoek bai irakasleek, umeez munduaren gatazka eta arazoei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea defendatzen zuten. Horren ondorioz, eduki berriak zituzten liburuak eskatzen hasi ziren. Liburu horiek heriotza, sexua, gerra, bakardadea, bazterketa, dibortzioa, terrorismoa, biolentzia... bezalako gaiak hartzen zituzten izaera bezala. Strausfeld-ek (1989) azpimarratzen du errealismo kritikoa irakurlearen jakin nahiari eta egunerokoan aurre egin behar dien gorabeheri erantzuna emateko zabaldu zela. Hau da, gurasoek edo irakasleek erantzuten ez dakizkiten edo erantzun nahi ez dituzten galderi erantzuna bilatzeko. Umeak jakin nahi du eta jakiteko eskubidea du (Strausfeld, 1989).

Gure Euskal Herriko egoerara bueltatuz, irakurlea pentsaraztera behartzen duen errealismo kritiko korrontearen idazle garrantzitsuen Marisun Landa (1984) da, bere *Txan Fantasma* obrarekin. Kariño faltak, bakardadeak eta helduen ulertezintasunak eragindako harremana aurkezten du. Obra hau Euskal Haur eta Gazte Literaturaren lehen idazlan modernoetako bat dugu bere gaiagatik eta narrazio teknikagatik (Etxaniz, 2010).

80ko hamarkadaren bigarren zatitik aurrera errealismo kritikoak gero eta pisu handiagoa izan du euskal letretan. Alde batetik beste hizkuntzetatik eginiko itzulpenak, U. Wölfelen *28 ipuin barre egiteko* (2004) eta *Suzko zapatak eta haizezko sandaliak* (1991), M. Griperen *Txorimaloaren alaba* (1988), *Beiraginaren seme-alabak* (2003), eta *Kakalardoak iluntzean hegaldatzen dira* (1996), Ch. Nöstlingerren *Franzen oporretako kontuak* (1994) eta *Franzen eskola kontuak* (1994), P. Härtlingen *Lena Teilatuan* (1994), T. Haugenen *Ate atzeko sekretuak* (1994) eta *Gautxoriak* (1990) eta beste idazle askoren lanak euskaratu dira. Baina, beste aldetik, euskaraz sorturiko lanek ere pisu handia izan dute gaur egun gizarteko arlo ia guztiak ukitu arte: bortxakeriaren erabileraz, *Joxeme gerrara daramate* (Xabier Mendiguren, 1992), familiaz, *Pirritx eta Porrotx arrantzan* (Mixel Murua, 2004), pobreziaz, *Kittano* (Joxan Ormazabal, 1988),

emigrazioaz, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (Bernardo Atxaga, 1984); langabeziaz, *Harrika* (Xabier Mendiguren, 1989), maitasunaz, *Kixmi elurpean* (Arrate Egaña, 2005), askatasunaz, *Asto bat hypodromoan* (Bernardo Atxaga, 1998), eta abarrez ari diren obrak ikus baititzakegu azken urteotan kalitatezko idazlanen artean (Etxaniz, 2010).

35 BAKARDADEA ETA UMEA

“Porque la soledad está dentro de nosotros y fuera de nosotros, porque cada uno de nosotros contiene su propia soledad y también aumenta la soledad de los demás, porque hay características de nuestra sociedad que exacerban la soledad, y porque no podemos manejarla o verla, sino sentirla, la soledad se ha convertido en el vehículo de nuestra miseria.” (Brown, 2005, 232 orr)

Oso gutxi ikertu da haur bakardadeari eta horrek eragiten dituen ondorioei buruz. Bakardadeaz hitz egiten duten topatutako ikerketa gehienak zahartzaroan edo helduaroan kokatzen dira. Hala ere, haur bakardadea aipatzen duten hainbat artikulu aztertu ditugu ondoren gure lanari eguneratuta dagoen oinarri teoriko sendo bat emateko.

Edith Sánchez (2019) kazetari, idazle eta soziologoak bere *La infinita soledad en los niños de hoy* artikuluan esaten du haur bakardadea benetako izurritea dela. Gaur eguneko gizarte klimak, besarkadarako, musuetarako eta elkarrizketarako tarreak jada ez existitzea eragiten du. Horren truke, lanerako denbora baino ez dago: jende agortua eta aurpegi luzeekin, berandu iristen diren gurasoak eta beti nekatuta eta aztoratuta egoten direnak. Sánchez-ek (2019) azpimarratzen du orain inoiz baino ohikoagoa dela adierazpen triste edo hotzeko haurrak ikustea. Gaurko haurrak oso bakarrik sentitzen dira eta horrek pertsona isilak bihurtzen ditu. Ez dakite nola adierazi sentitzen dutena inoiz ez baita hau solaserako gaia izan, eta bere barne munduaren berri ematen ez jakiteak haien bakardadea areagotzen du.

Bakardadea hurrek, gazteek eta helduek pairatzen duten arazo garrantzitsua da, hala ere, arreta gutxi eman zaio haur batzuek pairatzen duten bakardadeari. Karnick-ek (2005) esaten du bakardadea arreta berezia eskatzen duen nahasmendu bezala garrantzia

galdu duela. M. Soroak, E. Bernarasek eta J. Jauregizarrak (2012) baieztatzen duten bezala, haur bakardadea oharkabean pasatu izan da arrazoi desberdinengatik: beste zenbait nahaste psikologikorekin nahasi izan delako (adibidez, arreta-gabezia hiperaktibitatearekin nahastearekin), edota haurra hazten doan heinean haien aldarreak jasan ditzakeen gorabeherak normaltzat hartu izan direlako.

Autoestimu baxua, bazterketa soziala, depresioa eta beste egoera batzuk, bakardadea bezala, haurtzarotik sortzen diren arazoak dira. Faktore ezberdinen baturak haurraren interakzio soziala baldintzatuko du egunerokotasunean sortzen zaizkion zailtasunei eta egoerei konpontzeko irtenbide baten topaketa oztopatuz (Papalia, 1999).

Munduko Osasun Erakundearen (2004) arabera segurtasunik ezak, hezkuntza-maila baxuak, etxebizitza desegokiak, nutrizio txarrak, alkoholaren eta beste substantzia batzuen abusuak, tratu txarrek eta familia-gatazkek, eremu fisiko, sozial, emozional eta mentalean bizi-kalitatea nabarmen aldatzen dute. Faktore horiek segurtasun-ezaren, etsipenaren, bakardadearen, indarkeria-arriskuen eta osasun fisikoko arazoan esperientziek eragiten dituzte gizabanakoengan eta familiengan.

María Luceak (2017) Los 'niños llave': las consecuencias de la soledad plazaratutako artikulua arabera, Espainian bakardadea egunerokotasunean sentitzen duten ume kopurua 2017.urtean 400.000koa da. Horrek esan nahi du 5 eta 13 urte arteko ume guztien %11k pairatzen duela. Arazo hau gurasoen denboraren kudeaketari eragozten zaio. Gurasoek hoberena nahi dute haien seme-alabentzako, baina horrek lan gehiago egitera behartzen ditu zoratuta dagoen mundu honetan eta ez dira konturatzen seme-alabek gurasoekin egoteko denbora bakarrik behar dutela zoriontsu izateko.

36 BAKARDADEA ETA HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Orain arte ez dago Haur eta Gazte Literaturaren eta bakardade sentimenduaren arteko lotura aztertzen duen ikerketarik. Bi kontzeptu hauek modu isolatuan ikertzen dira nahiz eta literaturaren munduan Haur eta Gazte Literaturaren eta bakardadearen arteko harremana sendotzen duten hainbat obra egon.

Haurtzaroa bakardade-sentimenduak sentitzeko arrisku-aldia bada ere, garapen emozionala hobetuko duten gizarte-tresnak eta jarrerak literaturaren bitartez lantzeko espazio ezin hobeare bada.

Hori dela eta, literaturak hezkuntzaren arloan eskain dezakeenaren lekuko bihurtu nahi izan dugu. Beraz, literaturak haurren irakurzaletasuna, ulermena, sormena eta abar sustatzeko irekitzen duen leihoa, eta horrek guztiak eskolan izan dezakeen oihartzuna bueltatzen saiatuko gara lan honen bitartez.

4. METODOA

4.1 IKERKETAREN HELBURUAK

Garatzen ari garen ikerketa honen helburua, haurren irakurzaletasunari, ulermenari eta sormenari erreparatuz, gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan bakardadearen gaia nola tratatua den aztertzea da. Horretarako, gaur egun Haur eta Gazte Literatura zabaltzen duen genero literario garrantzitsu batean oinarrituko gara: albumean.

Gaur egun haur bakardadea gure gizartean txertatuta dagoen arazo bat dela frogatu da. Lan honen bitartez egiaztatu nahi dugu albuma haur bakardadeari lotutako sentimenduak eta garapen emozionala hobetzeko tresna ezin hobea dela .

4.2 HIPOTESIAK

Hipotesis 1. McDowell-en (1973) arabera, Haur eta Gazte Literaturako obretan protagonista umea ala gaztea izan behar da, irakurlea protagonistarekin identifikatuta sentitu dadin. Horrekin batera protagonista ipuin korapiloaren ardatza izanda, uste dugu bakardadea sentituko duena umea izango dela. Eta ez hori bakarrik, Felicidad Orquín-ek (1989) honetaz idatzi zuen esanez, Haur eta Gazte Literaturan nesken sentimenduak mutilen sentimenduak baino gehiago azaltzen zirela, hortaz uste dugu albumaren protagonista umea eta neska izango dela.

Nor da bakarrik sentitzen dena?							
Heldua			Umea			Animalia	
Emakumea	Gizona	Beste bat	Neska	Mutila	Beste bat	Humanizatua	Humanizatu gabea
OHARRAK:							

Hipotesi 2. Bakardadea giza sentimendu arrunta da; hala ere, gizabanako bakoitzarentzat esperientzia konplexua, bakarra eta jatorri ezberdinak dituena da. Idazleek haien obrak egitean gai bati buruzko ikuspuntu bat plazaratzen dute. Hori guztia jakinda, uste dugu aztertutako autore ezberdinen obren artean bakardadearen kausak ikuspuntu ezberdinak izango dituela.

Zerk eragiten du bakardade sentimendua?							
Migrazioak / Gudak	Tratu txarrek	Familia arazoek	Gizarte ulertezintasunak	Ezberdintasun pertsonalak	Identitate faltak	Norbait etsipenez oroitzeak/ Heriotzak	Besterik
OHARRAK:							

Hipotesi 3. Pertsonak izaki sozialak gara. Izakiok ditugun emozioak ez dira gure buruak sortutakoak bakarrik, gure inguruak ere eragin handia dauka bakoitzaren gaitasun emozionalean. Daniel Goleman-ek (2006) *Inteligencia social* liburuan esaten duenaren arabera, bibrazio ona eta txarra birusak bezain azkar kutsatzen dira. Liburuan, kutsatze emozional hori dagoela baieztatzen duten hainbat ikerketa aipatzen dira. Horrek esan nahi du arazo emozional baten aurrean gizakiok laguntza eskaintzen dugula kidearen oreka emozionala lortzeko; enpatia izatea adibidez. Hau aztertu ondoren, uste dugu bakardade sentimendua pairatzen duenak ez duela oreka emozionala bera bakarrik lortuko, baizik eta norbaiten laguntza izango duela.

Nork laguntzen dio pertsonaiari bakardadea gainditzeko?				
Familiak	Lagunek	Laguntzarik gabe	Beste batzuek	Ez zehaztutakoak
OHARRAK:				

Hipotesi 4. Eric Kandel (2013) Medikuntza Nobel saria 2000. urtean jasotako medikuak *Principles of Neural Science* idatzitako liburuaren 48. kapituluaren baieztatzen du emozioak eta sentimenduak kontzeptu ezberdinak direla. Emozioak eta sentimenduak ez dira gertatzen zaiguna, sortzen duguna baizik. Emozioak burmuinak egoera desafiatazaileak hautematen dituen inkontzienteki sortzen dituen erantzun fisiologikoen multzoa bezala definitzen dira. Erantzun fisiologiko automatiko horiek burmuinaren barruan eta gorputzean gertatzen dira. Garunean aktibazio-mailak (arousala) handitzeak, zenbait funtziotan (arretan, memorian eta erabakiak hartzeko estrategietan) aldaketak eragiten ditu. Sentimenduak aldaketa somatiko eta kognitibo horien esperientzia kontzienteak dira, esperientzia emozional horien pertzepzio kontzienteak dira. Sentitzen duguna neurtzea, eta zehaztutako irizpide batzuen artean sailkatzea oso zaila da, pertsona bakoitzak modu ezberdinean bizitzen duelako. Emozioak eta sentimenduak ezin dira sailkatu eta egoeraren arabera bat edo bestea erabili. Sentsazio multzo bat bezala azaltzen dira, horregatik hauek identifikatzeko zailtasunak ditugu. Beraz, uste dugu bakardadea ez dela sentimendu bakar bat bezala azalduko, baizik eta beste emozio eta sentimendu batzuekin batera agertuko dela.

Badaude bakardadearekin batera agertzen diren beste sentimenduak/ emozioak batzuk?									
Bai									Ez
Tristura	Beldurra	Itxaropena	Alaitasuna	Barnehutsa	Ulertezintasuna	Errua	Haserrea	Beste batzuk	
OHARRAK:									

Hipotesi 5. 70. hamarkadara arte Haur eta Gazte Literaturako obra gehienek amaiera zoriontsua zuten, eta hori izan da Haur eta Gazte Literaturaren ezaugarri nagusietako bat McDowell-en (1973) definizioaren arabera. Errealismo kritiko korrontearen eraginez amaiera zoriontsuak ez zituzten obra ezberdinak agertu ziren. Teresa Colomer-en (1996) arabera, gaur egun bost amaiera mota posible daude: zoriontsua, negatiboa, nahasia, irekia eta arazoaren onarpenean oinarritutakoa. Aurretik esandako guztia kontuan hartuz, uste dugu aztertu beharreko obrek ez dutela amaiera zoriontsurik izango.

Teresa Colomer-en (1996) amaiera moten sailkapenean oinarrituta, narrazioak ze amaiera mota izango du?				
Zoriontsua	Negatiboa	Nahasia	Ireakia	Arazoen onarpenean oinarritua
OHARRAK:				

Hipotesi 6. Albumean irudia eta hitza (bi kode) sekuentzietan biltzen eta uztartzen dira literatur lan bat eraikitzeko. Obiols-ek (2004) baieztatzen du hain funtsezkoa dela albumean irudiak hartutako garrantzia, ilustrazioa ez dela bakarrik beharrezkoa bihurtu baizik eta testuak baino garrantzi gehiago har dezakeen. Ikuspuntu hori kontuan hartuta, uste dugu bakardade sentimendua baita irudiaren bitartez ere deskribatuko dela.

Bakardadea zeren bidez irudikatzen da?		
Testuaren bidez	Irudiaren bidez	Bien artean
OHARRAK:		

Hipotesi 7. Naturan kolore ezberdinak daude, eta horietako bakoitzak gure emozioetan modu ezberdinean eragiten du. Paul Zelanski-k eta Maria Pat Fisher-ek (2001) *Color* liburuan azaltzen duten bezala, kolore gorriak, laranja eta horiak kitzikatzen gaituzte, baina berdeak eta urdinak, aldiz, lasaitu. Kolore bakoitzak gure subkontzientean esanahi bat du eta horri bizi garen kulturaren arabera balio batzuk edo beste batzuk lotzen dizkiogu. Gure kulturaren kolore hotzak edo ilunak eragin negatiboak sortzen dituzten emozioekin lotzen dira. Kolore beroak edo argiak, ordea, eragin positiboak sortzen dituzten emozioekin. Jakinda bakardade sentimendua eragin negatiboak dituzten emozioekin lotzen dela, uste dugu bakardade sentimendua kolore ilunekin irudikatuko dela.

Zein baliabide erabiltzen da irudiaren bitartez bakardadea adierazteko?					
Koloreak		Objektuak	Pertsonaiak	Paisaiak	Beste batzuk
Argiak	Ilunak				
OHARRAK:					

4.3 INFORMAZIOA JASOTZEKO BALIABIDEAK

Gure *corpusak* eskaintzen digun informazioa biltzeko, aztertzeko eta, ondoren, ondorioak jasotzeko, fitxa bibliografiko bat osatu dugu. Fitxa honek hainbat atal ezberdinez osatuta egongo da, aurreko puntuan deskribatutako hipotesiekin bat egingo dutenak.

Fitxa hiru atal ezberdinetan banatuta dago non atal bakoitzak irakurri ditugun 17 albumen informazioa eskuratzeko aukera ematen digun. Hauek dira gure ikerketa fitxa osatzen duten atalak:

1. Lehenengo atalean albumen informazio orokorra biltzen da; izenburua, idazlea, irudigilea, argitalpen urtea, argitaletxea, itzulpena den edo ez (urtea eta hizkuntza) eta argumentua.

ALBUMAREN INFORMAZIOA OROKORRA	
Izenburua:	
Idazlea:	
Irudigilea:	
Argitalpen urtea	Argitaletxea
Itzulpena	
Bai	Ez
Urtea:	Hizkuntza:
Argumentua:	

2. Bigarren atala albumaren gaiari oinarritzen da, bakardade sentimenduari erreferentzia eginez. Taulan dauden galderak bakardade sentimenduari protagonista, jatorria, beste sentimenduekin duen harremana eta konponbideari buruzko informazioa lortuko dute. Hauek dira galdera zehatz horiek: nor da bakarrik sentitzen dena? Zerk eragiten du bakardade emozio/sentimendua? Badaude bakardadearekin batera agertzen diren beste sentimendurik/emoziorik? Nork laguntzen dio protagonistari bakardadea gainditzen?.
Galderak ez dute erantzun bakarra. Horren ondorioz, OHARRAK izeneko azpiatal bat dute argitu beharreko guztia bertan idazteko.

BAKARDADEA							
Nor da bakarrik sentitzen dena?							
Heldua			Umea			Animalia	
Emakumea	Gizona	Beste bat	Neska	Mutila	Beste bat	Humanizatua	Humanizatu gabea
OHARRAK:							

Zerk eragiten du bakardade sentimendua?							
Migrazioak / Gudak	Tratu txarrek	Familia arazoek	Gizarte ulertezintasunak	Ezberdintasun pertsonalek	Identitate faltak	Norbait etsipenez oroitzeak/ Heriotzak	Besterik
OHARRAK:							

Badaude bakardadearekin batera agertzen diren beste emozio/sentimendurik?									
Bai									Ez
Tristura	Beldurra	Itxaropena	Alaitasuna	Barnehutsa	Ulertezintasuna	Errua	Haserrea	Beste batzuk	
OHARRAK:									

Nork laguntzen dio pertsonaiari bakardadea gainditzen?				
Familiak	Lagunek	Laguntzarik gabe	Beste batzuek	Ez zehatutakoek
OHARRAK:				

3. Hirugarren atala albumaren egituran oinarritzen da. Bertan obrak duen amaiera mota, irudiaren eta hitzaren arteko harremana edo funtzioa, eta ilustrazioaren zereginari buruzko informazioa lortuko da.

Galderek ez dute erantzun bakarra. Horren ondorioz, OHARRAK izeneko azpiatal bat dute argitu beharreko guztia bertan idazteko.

ALBUMAREN EGITURA				
Teresa Colomer-en amaiera moten sailkapenean oinarrituz, narrazioak ze amaiera mota izango du?				
Zorionsua	Negatiboa	Nahasia	Irekia	Arazoen onarpenean oinarritua
OHARRAK:				

Bakardadea zeren bidez irudikatzen da?		
Testuaren bidez	Irudiaren bidez	Bien artean
OHARRAK:		

Zein baliabide erabiltzen da irudiaren bitartez bakardatea adierazteko?					
Koloreak		Objektuak	Pertsonaiak	Paisaiak	Beste batzuk
Argiak	Ilunak				
OHARRAK:					

Azken batean, fitxa honek eskaintzen digun informazioaren bidez eta lortutako datuak modu objektiboan interpretatuz, gure ondorioak ateratzeko emaitzak lortuko ditugu.

4.4 CORPUS LITERARIOA

Corpus literarioa gure ikerketa aurrera eramateko lagina izango da. Lan honek suposatzen duen lan zama guztia *corpusean* ezarriko da eta lortutako emaitzek gure ondorioak ateratzeko aukera emango digute. Beraz, ikertu beharreko obren aukeraketa funtsezkoa da lanaren azken emaitzak baliagarriak izateko.

Hauek izan dira gure *corpus* literarioa aukeratzeko jarraitutako irizpideak:

- Genero literarioa: albuma. Zaparain-en eta González-en ustetan (2010), albuma bereizgarri egiten duten ezaugarrietan oinarritu dugu.
- Gaia: bakardatea gai nagusi bezala duten albumak izatea.
- Hizkuntza: Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizialetan (euskara edo gaztelania) idatzia edo itzulia egotea gure hezkuntza testuinguruarekin lotzeko.
- Argitalpen urtea: 2000. urtetik honako albumak izatea, obrak eguneratuak egon daitezen.
- Autorea: *corpusa* osatzen duen obra bakoitzak autore ezberdin bat izan behar du. Horrela autore ezberdinen ikuspuntuak lantzeko aukera izango dugu.
- Adina: Haur eta Gazte Literaturaren obrak izatea, hau da, umeentzat zuzendutako literatura izatea.

Irizpide hauek jarraituz, 17 albumek osatzen duten *corpus* literarioa aurkezten dugu. Ez da lan erreza izan bakardatea gai nagusi hartzen duten umeentzat zuzendutako albumak

topatzea, are eta zailagoa azken 19 urtekoak izatea. Hizkuntzari dagokionez, hasiera batean euskaraz idatzitako obrak bakarrik aukeratu nahi genituen. *Corpusa* sortzen hastean, ordea, konturatu ginen gure irizpideak jarraitu behar zituzten euskaratutako oso obra gutxi zeudela. Horren eraginez Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizialetan idatzia eta argitara emana egotera zabaldu genuen gure hizkuntza irizpidea.


Ondoren txertatuko dugun 17 albumek osatzen duten *corpusa*, 32 obrak osatzen zuten beste *corpus* orokorrago batetik ateratako emaitza da. Guk proposatutako irizpideak betetzen dituzten eta, adituen ustez, kalitatezkoak diren albumak bakarrik zerrendatu ditugu. Hona hemen gure haur bakardadeari buruzko 17 albumak:

- Aguirre, Z. (2016). *Martin gris*. Bigastro, Murtzia: Fun Readers.
- Buitrago, J – Yockteng. (2012). *Eloisa y los bichos*. Madril: El jinete azul.
- Colombo, N. (2008). *Hurbil*. Nafarroa: Pamiela.
- Davies, B. (2015). *La isla del abuelo*. Valentzia: Andama Editorial.
- Ferrandiz, E. (2010). *El abrigo de Pupa*. Bartzelona: Thule Ediciones.
- Gregoria, J.- Parreño, F. (2019). *Seis años, Seis casitas*. Valentzia: Algar.
- Jeffers, O. (2006). *Perdido y encontrado*. Mexico: Fondo de Cultura Ekonomika de España.
- Leen, S. (2011). *El pájaro negro*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- Liao, J. (2016). *Un día más contigo caminando en una tarde de primavera*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- LLenas, A. (2015). *Vacío*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- Morten, D. – Horneman, L. (2018). *Zenobia*. Granada: Barbara: Fiore Editora.
- Murillo, J. A. – Paz, M. (2017). *Azul*. Bartzelona: Thule Ediciones.
- Roumigiúere, C. – Lacombe, B. (2011). *La niña silencio*. Zaragoza: Edelvives.
- Schössow, P. (2006). *!¿Como es posible?! La historia de Elvis*. Salamanca: Lóguez Editorial.
- Tan, S. (2005). *El árbol rojo*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- Thor, A. – Jönsson, M. (2016). *La niña de muy lejos*. Madril: El gato sueco editorial.
- Tortosa, A.- León, Esperanza. (2011). *Camino de mi casa*. Bartzelona: Thule Ediciones

5. EMAITZAK


Hurrengo paragrafo eta grafikoetan agertzen diren emaitzek gure *corpuseko* Haur eta Gazte Literaturako obretan bakardadeak duen trataera jasotzen dute.

- Itzulpenei dagokienez, %35a (N=6) jatorrizko hizkuntza erdara duten albumak dira, %65a (N=11) itzulpenak dira eta, aldiz, %0a (N=0) euskaraz jatorriz argitaratutako obrei dagokie.




Aurreko grafikoan irudikatu dugun moduan, *corpusa* osatzen duten %65a kanpoko hizkuntzetatik itzulitako obrak dira. Datu horiek jaso ondoren interesgarria ikusten dugu album horien jatorria aztertzea; aztertutako albumen %37a (N=4) ingelesa dute jatorrizko hizkuntza bezala. Gainontzeko %63a suediarra, alemana, daniera, frantsesa, koreanoa, gaztelera eta katalana hizkuntza originala bezala duten obrek hartzen dute. Hizkuntza bakoitzak ikerketaren %9a (N=1) irudikatzen du.

Itzulpenen jatorrizko hizkuntza




- *Corpusa* 2000. urtetik aurrera argitaratutako albumek osatzen dute. Hona hemen albumen argitalpen urtea azertu ondoren lortutako emaitzen barra-diagrama;




- Ikertutako obretan bakardadea sentitzen duen protagonista-eredua sei formatu ezberdinetan azertu dugu; protagonista heldua, gizona nahiz emakumea izanda, ez da obra bakar batean agertu, % 0a (N=0). Umeak, aldiz, ikertutako 17 obretatik 15 obretan protagonistak izan dira. Datu horri gehitu behar zaio bakardadea sentimendua sentitzen duten protagonisten %70a (N=12) neskak direla. Mutilen kasuan, aldiz, bakardadea sentitzen duten ehunekoa %18koa


(N=3) da. Beste aldetik, badaude ere animalia humanizatuak protagonista bezala hartzen dituzten obrak baina ikertutako *corpusaren* % 12a (N=2) bakarrik hartzen dute.




- Bakardade sentimenduaren jatorria taularen bitartez zehaztutako aukeren artean nahiko parekatua dago. Migrazioak/gudak eragindako bakardadea %17 (N=3) obretan agertzen da. Norbait etsipenez oroitzeak/ heriotzak ondorioz eragindako bakardadea %17 (N=3) obretan ere. Tratu txarrek, familia arazoek, gizartearen ulertezintasunak, ezberdintasun pertsonalek eta ez zehaztutako bakardade sentimenduaren jatorriek obren ehuneko berdina partekatzen dute, %12 (N=2). Protagonistaren identitate faltagatik eragindako bakardade sentimendua, aldiz, bakarrik obra batean agertzen da, %6 (N=1).




- Aztertutako albumetan bakardade sentimendua modu ezberdinetan gainditzen da. Kasu gehienetan bakardadea sentitzen zuen pertsonaiari egoera hori gainditzen laguntzen diote; lagunak agertzen dira bakardadea gainditzeko laguntzaile nagusi bezala %35arekin (N=6). %35 (N=4) obretan protagonistak laguntza gabe bakardadea gainditzen du. Jarraian, familia da laguntzaile bezala azaltzen dena albumen %18arekin (N=3). Azkenik, bakardadea gainditzen laguntzen duten familia, lagunak edo protagonista bera ez diren beste pertsonaiek %12a (N=2) hartzen dute, eta ez zehaztutakoek beste %12a (N=2).




- Bakardadearekin batera agertutako sentimenduei/emozioei dagokienez, ikertutako obren %100ean (N= 17) bakardade sentimendua beste sentimendu edo emozio batzuekin batera azaldu da. Tristura %35arekin (N=9) eta beldurra %27arekin (N=7) nagusitzen dira. Itxaropena %11a (N=3) eta barnehutsa %11a (N=3) bakardadearekin batera maila berean agertzen dira. Protagonistak sentitzen duen bakardadearekin batera ulertezintasuna azaltzen den obren kasuak %8a (N=2) dira. Azkenik, alaitasuna eta errua obra batzuetan agertu dira, sentimendu bakoitzak ikerketaren atal honen %4a (N=1) hartuz.



- Teresa Colomer-en (1996) arabera, gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan bost amaiera mota posible daude: zoriontsua, negatiboa, nahasia, irekia eta arazoaren onarpenean oinarritutakoa. Gure *Corpusa* aztertu ondoren hauek izan dira atera ditugun emaitzak; amaiera zoriontsua duten obrak nagusitzen dira %64arekin (N=11). Amaiera negatiboa duten obrek %12a (N=2) hartzen dute eta amaiera nahasia dutenak ere %12a (N=2) dira. Colomerek (1996) emandako sailkapenaren arabera amaiera irekia duten obrek gure *corpusaren* %6a (N=1) bakarrik hartzen dute, arazoaren onarpenetan oinarritutako obrek bezala.




- Shulevitz (1997) autore eta ilustratzaileak baieztatzen du albumaren berezko identitatea ez dagoela bere formatu berezian, baizik eta irudiaren eta testuaren arteko erlazioan. Bakardade sentimendua zeren bidez irudikatzen den ikertu ondoren honako emaitza hauek atera ditugu; bakardadea irudiaren bitartez adierazitako obrek *corpusaren* %53a (N=9) hartzen dute. Testuaren eta irudiaren arteko nahasketaren bitartez irudikatutakoa %41a (N=7) da, eta testuaren bidez adierazitakoa %6a (N=1).



- Aztertutako obratan bakardade sentimendua batez ere irudiaren bitartez adierazten da, baina horretarako baliabide ezberdinak erabiltzen dira. Hona hemen ikerketa egin ondoren ateratako emaitzak: marraztutako pertsonaien bitartez irudikatutako bakardadea %41 (N=7) obratan nagusitzen da. Bakardadea kolore ilunen bidez adierazitako irudiek ere garrantzia izan dute %35 (N=6) albumetan. Paisaien bidez bakardadea irudikatua agertzen diren obrak bakarrik %12a (N=2) dira. Azkenik, ilustratzaileak marraztutako objektuen (*Seis años, seis casitas* albumean agertzen diren etxetxo ebakigarriak eta *El abrigo de Pupa* obran protagonistak jantzita daraman txamarra) bitartez adierazitako albumak *corpusaren* %12a (N=2) dira.

Zein baliabide erabiltzen dira irudiaren bitartez bakardadea adierazteko?



6. ONDORIOAK

Gure *corpusa* aztertu eta emaitzei buruzko gogoeta egin ondoren, azken atal honen bitartez lanaren hasieran plazaratutako galderei erantzun posible batzuk ematea dugu helburu. Hurrengo paragrafoetan lan honen oinarri teorikoa ikerketan egin ondoren lortutako emaitzekin alderatuko dugu gure ondorio propioak ateratzeko.

Ikerketaren xedea gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan bakardadearen gaia nola tratatua den aztertzea da. Horretarako *metodoa* atalean sortutako hipotesietatik abiatuta eta *corpusaren* analisia egin ondoren, hainbat ondorio atera ditugu hurrengo orrialdetan txertatuko ditugunak.

Albumen jatorriari dagokionez, bakardadea bezalako gai deseroso bati aurre egiteko, gaurko gazteleraz eta euskarazko Haur Literaturek atzerriko ekoizpenen beharra dute horrelako gaietan tradizio gutxikoak direlako. Marko teorikoan aipatu dugun bezala, 80ko hamarkadaren bigarren zatitik aurrera errealismo kritikoak gero eta pisu handiagoa izan du euskal letretan, bai beste hizkuntzetatik egindako itzulpenei eta bai, euskaraz idatzitako obrei esker (Etxaniz, 2010). Lan honen bitartez egindako ikerketaren emaitzei buruzko gogoetan egin ondoren, baieztatu dezakegu bakardade sentimendua tratatzen duten album gehienak beste hizkuntza batzuetatik itzultitakoak direla. Eta ez hori bakarrik, gure *corpusa* osatu duten albumen jatorrizko hizkuntza nagusia ingelesa izan dela, hizkuntza honek hiztun eta merkatu askoz handiagoa duelako.

Bakardea Haur eta Gazte Literatura albumetan, errealismo kritiko korrontearen barruan tratatzen den gai berritzaileetako bat da. Michi Strausfeld-ek (1989) bere *El realismo crítico en la literatura infantil-juvenil* artikuluan errealismo kritikoaren hasiera bi obrek definitzen dutela esaten digu; *Emilio eta detektibeak* (Erich Kästner, 1929) eta *Pippi Kaltzaluze* (Astrid Lindgren, 1945). Hortik aurrera umearen mundu eta arazo errealak proposatzen zituzten obrak nagusitzen hasi ziren. Heriotza, sexua, gerra, bazterkeria dibortzioa, terrorismoa, biolentzia... eta horrekin batera bakardadea bezalako gaiak hartzen zituzten izaera bezala. Urteak aurrera joan ahala, Haur eta Gazte Literaturan gai berritzaileak geroz eta ageriagoak izan dira. Gure *corpusaren* argitalpen urteak aztertu

ondoren, Haur eta Gazte Literaturan bakardadea gai bezala duten obren kopurua azken bost urtetan handitu dela baieztatu dezakegu. Datu horrek *marko teorikoaren bakardadea eta umea* azpiatalean Edith Sánchez-ek (2019), Karnick-ek (2005) eta María Luceak (2017) ikertutako gizarte bakardade sentimenduaren hazkuntza etengabearekin bat egiten du. Horren ondorioz esan dezakegu azken urteetako albumak gizarte beharretara egokitzen direla Haur eta Gazte Literaturaren botere terapeutikoa erabiliz. Joera hori izanez gero, eta gure gizarte eta bizimodua aldatzen ez bada, hurrengo urteetan bakardadea tratatzen duten albumen hazkundera espero dugu.

Ikertutako obren edukiaren aldetik, beste ondorio batzuk atera ditugu. *Corpusa* osatzen duten obra gehienetan bakardadea sentitzen duen pertsonaia neska bat da. Marko teorikoan aipatutako McDowell (1973) Haur eta Gazte Literaturak izan behar dituen ezaugarrien azterketaren arabera, protagonista umea ala gaztea da. Horri esker narrazioaren hartzaila protagonistarekin identifikatuta sentitzen da. Beste alde batetik, *corpusa* aztertu ondoren, ondorioztatu dugu bakardadea sentitzen duen pertsonaiak sexu generoarekin harreman estua duela. Nahiz eta XXI. mendean egon, badirudi sentimendu batzuk sexu zehatz bati lotzen dizkiogula. Oraindik ere neskak beldurrarekin, tristurarekin, barnehutsarekin, menpekotasunarekin... eta bakardadearekin parekatzen ditugu, nahiz eta gai berritzaileak bere barnean hartzen dituen errealismo kritiko korrontearen jaiotzak protagonista bezala neska aske, ausarta, autonomoa eta alai izan: *Pippi Kaltzaluz* (Lindgren, 1945).

Obretan nagusitzen den bakardade sentimenduaren jatorria gure azken urteetako gizartearen isla dela ondorioztatu dugu. Alde batetik, ikertutako albumetan bakardadea arazo sozialetatik sortzen da; tratu txarrak, familia arazoak, gizarte ulertezintasunak, ezberdintasun pertsonalak eta identitate falta. Baina bakardadearen jatorri sozial nagusia herrialdeen arteko gatazken ondorioz sortzen da. Gudaren erruz milaka pertsona nahitaez beraien etxeetatik lekualdatu behar dira haien bizitza salbatzeko, eta egoera hori da gure *corpusa* osatzen duten obra askok erakusten duten errealitatea. ACNUR (2018) elkartearen arabera, munduan 65,6 milioi pertsonak gatazken ondorioz behartutako lekualdatzeak egin behar izan dituzte eta 22,5 milioi errefuxiatuak dira. Horren ondorioz familiak apurtzen dira, gosea eta miseria handitzen da, pertsonen identitatea desagertzen da, heriotzak protagonismoa hartzen du eta bakardadea inoiz

baino gehiago agerikoa da. *Corpusa* osatzen duten obretan bakardadearen jatorriak ez du fantasiatzko mundu bat irudikatzen, baizik eta azken urteetako gizarte errealari kritika egiten dio.

Aurreko paragrafoan obretan islatutako bakardade sentimenduaren jatorria arazo sozialei leporatu diegu, baina maila berean arazo naturalek hartzen dute albumetan agertutako bakardadearen jatorria. Heriotzaren ondorioz norbait etsipenez oroitzeak sortutako bakardadea ikertutako album askotan agertu da. De la Herrán eta beste batzuek (2000) heriotza baten ondoren datorren doluaren faseak honela definitzen dituzte: ezjakintasuna, abandonua, etsipena, onarpena eta positibotasuna. Wonden-ek (1997) dolu prozesua hildakoaren galeraren asimilazioan eta pozaren berreskuratzean oinarritzen du. Horrekin esan nahi dugu obretan agertzen den bakardadearen jatorria, doluak sortutako abandonu prozesuaren ondorioz agertzen dela.

Metodoaren atalean aipatutako Daniel Goleman-ek (2006) *Inteligencia social* idatzitako liburuan esaten du emozioek edo sentimenduek gure oreka emozionala desorekatzen dutela. Baina oreka emozional hori berriz lortzeko ez dugu zertan gure eskuetan dauden baliabide emozionalak bakarrik erabili. Horrek esan nahi du arazo emozional baten aurrean gizakiok laguntza eskaintzen dugula kidearen oreka emozionala lortzeko. Azken baieztapen hau izan da lan honen bitartez ondorioztatu duguna. Normala den bezala, bakardadea laguntasunarekin “sendatzen” da. Gure ikerketaren emaitzak aztertu ondoren, argi ikusi da ikertutako obra gehienetan bakardadearen desagertzea beste pertsona batek eskainitako laguntzagatik gertatzen dela. Laguntzaile horien perfil nagusiak lagunak eta familia badira ere, baditugu kasu batzuk non bakardadea, pairatzen duen pertsona berak konpontzen duen, hau da laguntzarik gabe. Beraz ondorioztatu dezakegu ikertutako obretan bakardadea laguntasunarekin konpondu daitekeela baina posiblea dela ere bakardadea kanpoko laguntzarik gabe konpontzea.

Bakardade sentimenduarekin batera agertutako beste sentimenduei/emozioei buruzko gogoeta egin ondoren, konturatu gara Eric Kandel-ek (2013), Medikuntza Nobel saria 2000. urtean jasotako medikuak, *Principles of Neural Science* liburuan idatzitako gure *corpusa* ikertzean baieztatu dela. *Principles of Neural Science* liburuan ondorioztatzen da sentitzen duguna neurtzea, eta zehaztutako irizpide batzuen artean sailkatzea oso

zaila dela, pertsona bakoitzak modu ezberdinean bizitzen duelako. Emozioak eta sentimenduak ezin direla banaka sailkatu eta egoeraren arabera modu independentean bat edo bestea erabili. Sentsazio multzo bat bezala azaltzen direla, horregatik hauek identifikatzeko zailtasunak ditugu. Aztertutako obren kasu guztietan bakardade sentimendua beste sentimendu/emozio batzuekin batera azaleratzen da. Eta ez hori bakarrik, ikertutako albumen erdian baino gehiagotan bakardadea, tristura edo beldurrarekin batera agertzen da. Horrekin ondorioztatzen dugu sentimenduak eta emozioak ezin direla album batean modu isolatu batean irudikatu, baizik eta multzo bat bezala agertzen direla. Horrez gain, bakardade sentimenduak beldurra eta tristura bezalako emozioak sortzen dituela.

Gure *corpuseko* albumen amaierak Teresa Colomer-en (1996) amaiera moten sailkapenaren arabera definitu ditugu. Marko teorikoan azaldu dugun bezala, 70. hamarkadara arte Haur eta Gazte Literaturako obra gehienek amaiera zoriontsua zuten. McDowell-en (1973) Haur eta Gazte Literaturaren definizioaren arabera, haurrentzat zuzendutako obrek amaiera zoriontsua izan behar dute. Baina errealismo kritiko korrontearen eraginez amaiera zoriontsuak ez zituzten obra ezberdinak agertu ziren. Teresa Colomer-en (1996) arabera, gaur egun bost amaiera mota posible daude: zoriontsua, negatiboa, nahasia, irekia eta arazoaren onarpenean oinarritutakoa. Gure ikerketa egin ondoren ondorioztatu dugu nahiz eta obra batzuek amaiera negatiboa, nahasia, irekia edo arazoaren onarpenean oinarritutakoak izan, obren erdia baino gehiagok amaiera zoriontsua dutela. Horrek Turinek (2017) gaur egungo obrek ez dutela helburu moralizatzaile edo pedagogiko bat izatearen ideiarekin talka egiten du. Gure ondorioek, aldiz, Haur eta Gazte Literaturak oraindik ere zoriontasunean itxaropena izan behar duenaren ideia indartzen dute. Amaiera zoriontsuek, nahiz eta askotan bizi dezakegun errealitatea ezkutatu, merkatuan sartzeko eta salmentak handiagotzeko aukera gehiago eskaintzen dituzte: idazleek eta irudigileek, argitaletxeek saldu eta irakurleek irakurri nahi dutena sortu behar dute arrakasta izateko?

Oinarri teorikoan behin baino gehiagotan azpimarratu dugu literaturak forma anitzak har ditzakeela eta, horren ondorioz, testu baten irakurketan ulermen eta interpretazioa prozesu ezberdinak sortu daitezkeela. Albumaren ezaugarri propioetan oinarrituz, Arnal (2011) idazlearen hitzetan, albumean irakurketa modu berezi bat lantzen da, non irudiak

eta testuak esanahiaren eraikuntza lortzeko harremanetan dauden. Autoreak jarraitzen du esanez albuma irakurle guztientzako obra bat dela, non ilustrazioaren protagonismoa gutxienez testuaren bezain nabarmena den, eta horrekin dialektika jakin bat ezartzen duen. Shulevitz (1997) autore eta ilustratzaileak baieztatzen du albumaren identitate propioa irudiaren eta testuaren arteko erlazioan dagoela. Irudia hitzari esker hobeto eta sakonago ulertuko da eta,aldi berean, hitzak irudian sakontzeko erraztasuna emango du. Lengoia bien batasunak norberaren eraginkortasun komunikatiboa areagotzen du. Aditu hauen hitzak irakurri, eta gure ikerketaren emaitzei buruzko gogoeta egin ondoren, esan dezakegu aztertutako albumetan irudiak hitzak baino garrantzia handiagoa hartu duela. Gure ondorioa Obiols-ek (2004) baieztatzen duenarekin bat dator; hain funtsezkoa da albumean irudiak hartutako garrantzia, ilustrazioa ez dela bakarrik beharrezkoa bihurtu, baizik eta testuak baino garrantzi handiagoa hartu baitu. Bakardadea nahiz eta testuan islatuta egon, irudirik gabe narrazioak ez luke esanahi berdina hartuko. Beraz esan dezakegu ikertutako albumetan testuak irudiarekin duen harremana ezinbestekoa dela autoreak transmititu nahi duen mezua hartzailerak jasotzeko.

Irudiak ezinbesteko garrantzia duela behin esanda, eta horrek bakardadea irudikatzeke baliabideei buruzko gogoeta egin ondoren, esan dezakegu ikertutako albumetan bakardadea batez ere pertsonaien eta kolore ilunen bitartez irudikatzen dela. Alde batetik, obra askotan pertsonaia bakarra dago, beraz irudiek bakardade sentipen ikaragarria transmititzen dute. Hori gutxi izango balitz, pertsonaiek hartzen dituzten gorputz jarrerek eta aurpegierek tristura eta beldurra adierazten dute. Horretaz aparte, lehen aipatu dugun bezala, irudien koloreek ere eragina dute bakardade sentimenduaren transmisioan. Oinarri teorikoan aipatu dugu gure kulturaren kolore hotzek edo ilunek eragin negatiboak sortzen dituzten emozioekin lotzen direla. Paul Zelanski-k eta Maria Pat Fisher-ek (2001) *Color* liburuan azaltzen duten bezala, kolore bakoitzak gure subkontzientean esanahi bat du eta horri bizi garen kulturaren arabera balio batzuk edo beste batzuk lotzen dizkiogu. Gure *corpusa* aztertu ondoren, ondorioztatu dezakegu bakardadea eragin negatiboak sortzen dituzten emozioekin lotzen dela kolore hotz eta ilunekin irudikatzen delako.

7. HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

Lan honi esker BAKARDADEAREN TRATAERA GAUR EGUNGO HAUR ALBUMETAN (2000-2019) aztertu izan dugu. Hala ere, badira aztertu gabe geratu zaizkigun hainbat alderdi, edo gehiago sakondu ditzakegunak. Horregatik, atal honetan lanaren gabeziak eta hobekuntza proposamenak aipatuko ditugu.

Hasteko, lana egin bitartean munduko pertsona guztiok bizi izan dugun egoera bereziari erreferentzia egin nahi diot. 2020ko martxoaren 15ean COVID-19 pandemiak gure bizimodua hankaz gora jarri zuen. Konfinamenduak emozionalki eragin zizkidan ondorioetatik aparte, aztertu beharreko hainbat obra eskuratzea eragotzi zidan. Liburutegiak martxoaren 15tik maiatzaren 31era itxi zituzten, beraz, ikerketarako behar nituen datu batzuk albumetatik zuzenean hartu beharrean interneten bidez eskuratu behar izan nituen. Horrek obra gutxi batzuk sakontasunez ez aztertzea ekarri zuen.

Aurrera eraman dugun ikerketa oso zehatza izan da. *Corpusa* osatzeko aukeratu ditugun irizpideek gure obren aukeraketa asko baldintzatu dute. Adibidez, albumak bakarrik aztertu beharrean, bakardadearen trataera Haur eta Gazte Literaturaren formatu guztietan aztertzea interesgarria izango litzateke. Nahiz eta albuma gaur egun arrakasta handiko generoa izan, gazteen artean gainerako lan literarioek ere garrantzia handia dute. Horrekin batera, aztertu ditugun obrak 2000-2019 urte tartean argitaratuak daude. Interesgarria izango litzateke urte tarte handiago bat hartzea, errealismo kritiko korrontearen hasierarekin bat egiten duena, bakardadearen gaiak gai deserosoen jaiotzan ze protagonismo izan zuen aztertzeke.

Bakardadea bezalako beste gai deseroso asko daude: sexua, terrorismoa, dibortzioa, biolentzia, heriotza... Jakin badakigu horrelako ikerkuntza lan batean aztertu beharreko gaia ondo zehaztu behar dela amaieran aterako diren ondorioak fidagarriak izan daitezen, baina gustatuko litzaiguke gai deserosoei buruz gehiago sakontzea. Hurrengo lan baterako utzi beharko dugu.

8. BIBLIOGRAFIA

Arnal, J.I. (2011). *El tratamiento de la muerte en el álbum infantil. Obras publicadas en castellano (1980-2008)* (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Bortolussi, M. (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Madrid: Alhambra.

Brown, R. (2005). An analysis of loneliness as a concept of important for dying persons. En: Cutcliffe J, McKenna (2005). *The essential concepts of nursing*. Londres: Churchill Livingstone.

Bruner, J. (1996). *The Culture of Education*. Cambridge, MA: Harvard University Press.

Cervera, J. (1989). Entorno a la literatura infantil. *CAUCE, Revista de Filología y su Didáctica*. (12), 157-168.

Colomer, T. (1996). ¿Cómo terminan los cuentos? *Espacios para la Lectura*, 2, 6-7.

Colomer, T. (2004). Las buenas formas. Tendencias de la literatura infantil y juvenil. In E. Aguiar (Koord.), *Anuario sobre el libro infantil y juvenil 2004* (73-95. orr.). Madrid: SM.

Colomer, T. (2006). *La formació del lector literario*. Bartzelona, Barcanova, 1998 (Trad. cast.: La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil. Madrid, Anaya).

De la Herrán, A. y otros (2000) *¿Todos los caracoles mueren siempre? Cómo tratar la muerte en Educación Infantil*. Madrid: Ediciones de la Torre.

Doonan, J. (1996). *International Companion Encyclopedia of Children's Literature*. Londres eta New York: Routledge.

Duran, T. (2009). *Álbumes y otras lecturas: Análisis de los libros infantiles*. Bartzelona: Octaedro.

Díaz Hanán, F. (1996). Variaciones sobre el tratamiento del tema de la muerte en la literatura infantil. *Revista latinoamericana de literatura infantil y juvenil*, 4, 6-13.

Díaz-Plaja, A., Prats, M. (1999). *La literatura infantil y juvenil como material impreso en primaria..* Madril: Asociación Educación y Bibliotecas Tilde.

Etxaniz, X. (2011). Sarrera. Egungo euskal haur eta gazte literatura. En J. Kortazar (Zuz.), *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia* (13-96 orr.). Bilbo: UPV/EHU. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Galarraga, H. (2018). *Literaturaren ikas-irakaskuntzan aurrera egiteko album ilustratuek eta ikasgelako elkarrekintzek eskaintzen dituzten aukerak* (doktorego tesia). Mondragon: Mondragoneko Unibertsitatea.

Galarraga, H., Alonso, I. (2018). *Elkarrekintza didaktikoa eta album ilustratua hezkuntza literarioarako giltzarri. Ezagutzak elkarrekin eraikitzen*. Mondragon: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.

Goleman, D. (2006). *Inteligencia Social. La nueva ciencia de las relaciones humanas*. Bartzelona: Kairos.

Jones, R. E. (1989). *Maurice Sendak's Where the wild things are: picture book poetry*. In P. Nodelman (Ed.), *Touchstones: Reflections on the Best in Children's Literature*. Volume Three: Picture Books (122-131 orr.). West Lafayette: Children's Literature Association.

Kandel, E. (2013). *Principles of Neural Science*. NY: McGraw.

Karnick, PM. (2005). Feeling Lonely: Theoretical Perspectives. *Nurs Sei Q*, 18, 7 -12.

Lartitegui, A. (2009). *El álbum perfecto o la búsqueda necesaria: ensayo de juicio estético para el género*. In R. Taberero et al. I Encuentro Internacional de Estudio y Debate: Literatura y Matices (199-243 orr.). Zaragoza: Fundación Tarazona Monumental.

M. Soroa, E. Bernaras eta J. Jauregizar (2012). *Haur-depresioa Lehen Hezkuntzako etapan: zertan datzan eta irakasleek zer egin dezakete*. EHUko Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola, EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Manguel, A. (2013). *Una historia de la lectura*. Madril: Alianza.

McDowell, M. (1973). *Fiction for Children and Adults: Some Essential Differences*. en FOX [et al.] eds. *Writers, Critics and Children*, pp. 140-156.

Medina, T. (2014). La importancia del diseño en el álbum ilustrado. *Peonza: Revista de Literatura Infantil y Juvenil*, 109, 53-61.

Obiols Suari, N. (2004). *Mirando cuentos. Lo visible e invisible en las ilustraciones de la literatura infantil*. Bartzelona: Laertes.

Olaziregi, M. J. (2001). Bernardo Atxaga o la seducción de los lectores vascos. *I Congreso Nacional de Literatura y Sociedad: El papel de la Literatura en el Siglo XX* (463-473 orr.). Coruña: UDC. Universidade da Coruña.

Organización Mundial de la Salud. (2004). *Promoción de la salud mental: conceptos, evidencia emergente y práctica*. Melbourne: Universidad de Melbourne

Orquín, F. (1989). La nueva imagen de la mujer. *CLIJ 11*, 14-19.

Papalia, D. (1999). *Desarrollo humano*. México DF: Edit. MC. Graw Hill.

Ramos, A. M. (2011). *Apontamentos para uma poética do álbum contemporâneo*. In B. Roig, I. Soto & M. Neira (Koord.), *O álbum na literatura infantil e xuvenil (2000-2010)* (13-40 orr.). Vigo: Edicións Xerais de Galicia.

Shulevitz, U. (1997). *Writing with pictures: How to write and illustrate children's books*. New York: Watson-Guptill Publications.

Soriano, M. (1995). *La literatura para niños y jóvenes. Guía de exploración de sus grandes temas*. Buenos Aires: Ediciones Colihue.

Strausfeld, M. (1989). El realismo crítico en la literatura infantil-juvenil. *CLIJ: Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 83, 83-87.

Tejerina, I. (1994). *Dramatización y teatro infantil. Dimensiones psicopedagógicas y expresivas*. Madrid: Siglo XXI.

Worden, J. W. (1997). *El tratamiento del duelo: asesoramiento psicológico y terapia*. Barcelona: Paidós.

Zaparaín, F. y González, L. D. (2010). *Cruce de caminos. Álbumes ilustrados: construcción y lectura*. Valladolid: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

Zayas, F. (2012). *10 ideas clave. La competencia lectora según PISA: Reflexiones y orientaciones didácticas*. Barcelona: Graó.

Zelanski, P., & Fisher, M. P. (2001). *Color* (Vol. 48). Madrid: Ediciones AKAL.

9. INTERNETGRAFIA

ACNUR. (2018). *Los 5 principales problemas del mundo actual*. 2020.04.27an https://eacnur.org/blog/principales-problemas-del-mundo-actual-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/ webgunetik berreskuratua.

Etxaniz, X. (2010). *Haur eta gazte literaturaren bilakaera*. 2019.12.16an https://www.ibby.org/fileadmin/template/main/bookbird_specialissue/BB_Spanish_July_Art5_Vasco_Rev.7-07.pdf webgunetik berreskuratua.

Sánchez, E. (2019). *La infinita soledad de los niños de hoy*. 2020.03.18an <https://lamenteesmaravillosa.com/la-infinita-soledad-los-ninos-hoy/> webgunetik berreskuratua.

Peña, M. (2017). *Los “niños llave”: las consecuencias de la soledad*. 2020.01.12an <https://www.hacerfamilia.com/ninos/ninos-llave-soledad-colegio-autonomia-html> webgunetik berreskuratua.

10. AZTERTUTAKO OBRAK

- Aguirre, Z. (2016). *Martin gris*. Bigastro, Murtzia: Fun Readers.
- Buitrago, J – Yockteng. (2012). *Eloisa y los bichos*. Madril: El jinete azul.
- Colombo, N. (2008). *Hurbil*. Arre (Nafarroa): Pamiela.
- Davies, B. (2015). *La isla del abuelo*. Valentzia: Andama Editorial.
- Ferrandiz, E. (2010). *El abrigo de Pupa*. Bartzelona: Thule Ediciones.
- Gregoria, J.- Parreño, F. (2019). *Seis años, Seis casitas*. Valentzia: Algar.
- Jeffers, O. (2006). *Perdido y encontrado*. México DF: Fondo de Cultura Ekonomika de España.
- Leen, S. (2011). *El pajar negro*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- Liao, J. (2016). *Un día más contigo caminando en una tarde de primavera*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- LLenas, A. (2015). *Vacío*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- Morten, D. – Horneman, L. (2018). *Zenobia*. Granada: Barbara: Fiore Editora.
- Murillo, J. A. – Paz, M. (2017). *Azul*. Bartzelona: Thule Ediciones.
- Roumigié, C. – Lacombe, B. (2011). *La niña silencio*. Zaragoza: Edelvives.
- Schössow, P. (2006). *!¿Como es posible?! La historia de Elvis*. Salamanca: Lóguez Editorial.
- Tan, S. (2005). *El arbol rojo*. Granada: Barbara Fiore Editora.
- Thor, A. – Jönsson, M. (2016). *La niña de muy lejos*. Madril: El gato sueco editorial.
- Tortosa, A.- León, Esperanza. (2011). *Camino de mi casa*. Bartzelona: Thule Ediciones.

11. ERANSKINAK

1. eranskina. *Martin gris* album fitxa.
2. eranskina. *Eloisa y los bichos* album fitxa.
3. eranskina. *Hurbil* album fitxa.
4. eranskina. *La isla del abuelo* album fitxa.
5. eranskina. *El abrigo de Pupa* album fitxa.
6. eranskina. *Seis años, Seis casitas* album fitxa..
7. eranskina. *Perdido y encontrado* album fitxa.
8. eranskina. *El pájaro negro* album fitxa.
9. eranskina. *Un día más contigo caminando en una tarde de primavera* album fitxa.
10. eranskina. *Vacío* album fitxa.
11. eranskina. *Zenobia* album fitxa.
12. eranskina. *Azul* album fitxa.
13. eranskina. *La niña silencio* album fitxa.
14. eranskina. *!¿Como es posible?! La historia de Elvis* album fitxa.
15. eranskina. *El arbol rojo* album fitxa.
16. eranskina. *La niña de muy lejos* album fitxa.
17. eranskina. *Camino de mi casa* album fitxa.

1. ERANSKINA

ALBUMAREN INFORMAZIOA

Izenburua: Martin Gris.

Idazlea: Aguirrez, Zuriñe.

Irudigilea: Aguirrez, Zuriñe.

Argitalpen urtea

2016

Argitaletxea

Fun Readers, SL

Itzulpena

Bai

Ez

X

Urtea:

Hizkuntza:

Argumentua: Martin “gris” sentitzen den ume bat da. Besteen gustuko ez izateak kezkatzen du barre egingo diotela uste duelako. Martinek bere kezkak amari kontatzen dizkio eta honek lasaitu egiten du.

Nor da bakarrik sentitzen dena?

Heldua

Umea

Animalia

Neska

Mutila

Beste bat

Neska

Mutila

Beste bat

Humanizatua

Humanizatu
gabea

X

OHARRAK:

Zerk eragiten du bakardade sentimendua?

Zerk eragiten du bakardade sentimendua?						
Migrazioak / Gudak	Tratu txarrek	Familia arazoek	Gizarte ulertezintasunak	Ezberdintasun pertsonalak	Identitate faltak	Norbait etsipenez oroitzeak/ Heriotzak
				X		
OHARRAK:						

Ba al dago bakardadearekin batera agertzen diren beste sentimendurik?

Ba al dago bakardadearekin batera agertzen diren beste sentimendurik?									
Bai									Ez
X									
Tristura	Beldurra	Itxaropena	Alaitasuna	Barnehutsa	Ulertezintasuna	Errua	Haserrea	Beste batzuk	
	X								
OHARRAK: besteen gustuko ez izatearen beldur da.									

Nork laguntzen dio pertsonaiari bakardadea gainditzen?

Nork laguntzen dio pertsonaiari bakardadea gainditzen?				
Familiak	Lagunek	Laguntzarik gabe	Beste batzuek	Ez zehaztutakoek
X				
OHARRAK: bere amak laguntzen dio.				

Teresa Colomer-en amaiera moten sailkapenean oinarrituz, ze amaiera mota izango du?				
Zoriontsua	Negatiboa	Nahasia	Irekia	Arazoen onarpenean oinarritua
X				
OHARRAK: amak bere semeari erakusten dio benetan garrantzitsua barnean duguna dela.				

Bakardadea zeren bidez irudikatzen da?		
Testua	Irudia	Bien arteko nahasketa
	X	
OHARRAK:		

Zein baliabide erabiltzen da irudiaren bitartez bakardadea adierazteko?					
Koloreak		Objektuak	Pertsonaiak	Paisaiak	Beste batzuk
Argiak	Ilunak				
	X				
OHARRAK: Martin albumaren hasiera grisa da eta obra aurrera joan ahala kolorea hartzen du.					

2. ERANSKINA

ALBUMAREN INFORMAZIOA

Izenburua: Eloisa y los bichos.

Idazlea: Buitrago, Jairo.

Irudigilea: Yockteng, Rafael.

Argitalpen urtea

2006

Argitaletxea

El Jinete Azul.

Itzulpena

Bai

Ez

X

Urtea:

Hizkuntza:

Argumentua: Eloisa hiri berri batera aldatu berri da. Bere eskola berriko ikaskide guztiak tamaina handiko intsektuak dira. Eloisa ondo egokituko ote da ezberdintasunez beteriko bizimodu berrira?.

